

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribe Kosta	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Euskara eta Literatura		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Hizkuntzak eta IKT		
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	-Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia -Teknologiarako kompetentzia -Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Amaia Zabala Javier Agirre María Luz Arranz Urtza Uranga	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016-17

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
- Hiztegia sakontzea, puntuazio ikurrak doitzearen, eta hizkuntzaren funtsezko unitateak identifikatzearen bitartez hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna landu. - Hiztegiak hausnartzea, ortografia-arauen erabilera sendotzearen, eta izen-sintagma zein aditz sintagmaren elementu morfosintaktikoak identifikatzearen, eta egoki erabiltzearen bitartez hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna landu. - Ahoz zein idatziz era egokian jardutearen, testuinguruaren arabera, bitartez ikasten ikasteko	1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea, bai ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarriketetan. Horrela, ikaskuntza-zereginak beteko dira, eta, informazio zehatzak hautemateaz gainera, azterketa gidatua egiteko argibideak jarraituko dira. 2. Ikasleen esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuetako eta bizitza akademiko

<p>gaitasuna landu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko eta idatzizko komunikazioaren erregistro formalaz, nahiz informalaz jabetzearen bitartez norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna landu. - Jarraibideetako informazioa ulertzea eta interpretatzearen bitartez autonomiarako gaitasuna landu. - Bizipen pertsonalak, sentimenduak eta gogoetak idatziz adieraztearen bitartez norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna landu. - Solasaldietan parte hartzea, ideiak nahiz sentimenduak adieraziz <p>hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna landu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkera komunikazio-egoera desberdinetara egokitzearen bitartez hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna landu. - Euskal Herriko aniztasun linguistikoaz jabetzea eta aberastasun hori balioestearen bitartez herritartasunerako gaitasuna landu. - Informazioa hainbat euskarritan bilatzearen eta hautatzearen bitartez ikasten ikasteko gaitasuna landu. - Teknologia berriak komunikazio tresna gisa erabiltzearen bitartez teknologiarako gaitasuna landu. - Literatura testuak irakurtzea atsegin hartzeko eta jakituria zabaltzeko asmoz <p>hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna landu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Antzerki-testu motak identifikatuz, ezaugarrien eta helburuaren arabera, <p>hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna landu.</p>	<p>testu idatzien esanahia ulertzea, eta narrazio-nahiz azalpen-testuetan (deskripziozkoak eta sekuentzialak) arreta berezia jartzea; horretarako, testu zatiak eta informazio eta datu garrantzitsuak identifikatu eta horietan azterketa egiteko emandako argibideak jarraituko dira.</p> <p>4. Ikasgelako elkarrizketetan parte-hartze aktiboa eta egokia izatea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.</p> <p>5. Hainbat generotako testu idatziak sortzea (gertaera-narratioak, ideia- eta kontzeptu-aurkezpenak, jarrai-bideak eta argumentuak); horretarako, plangintza-prozedurak erabiliko dira, eta, horrez gainera, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia izango da. erabiltzen duen.</p> <p>6. Hainbat generotako testu idatzien eta ikus-entzunezko testuen (narratioak eta azalpen deskriptiboak) eduki osoa ahoz eta idatziz laburtzea, eta horiei buruzko irakurketa hausnartua egitea.</p> <p>8. Euskal kulturaren transmisioan eta sormenean nahiz euskararen normalizazio-prozesuan parte hartzea eta hizkuntza hori ohiko komunikazio-egoeretan erabiltzea.</p> <p>9. Oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz, hizkuntza-errealitateen aniztasunaz kontzientziaztea.</p> <p>11. Hizkuntzen erabilera-sistemari eta -arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.</p> <p>12. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena– eta erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan baliatzea.</p> <p>13. Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jarduerako premiei erantzuteko behar duen informazioa bilatzeko, hautatzeko eta prozesatzeko.</p> <p>14. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte-hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.</p>
--	---

	<p>15. Literaturan dituen ezagutzak baliatuz, testu laburrak edo literatura-lanetako testu zatiak ulertzea.</p> <p>16. Hainbat generotan, literatura-asmoko ahozko testuak eta testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); horretarako, ikasgelan irakurri eta landutako literatura-testu bat hartuko da eredu, edo, bestela, testu horietan aldaketak egingo dira.</p> <p>19. Literaturaz baliatzea gozatzeko, mundua ezagutzeko eta norberaren identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.</p>
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje].

Ikasturte honetan Santillana-Zubia argitaletxearen proiektua landuko dugu ikasleekin, Eragin/Euskara eta Literatura izeneko testuliburua, hain zuzen.

3 ebaluazioetan egingo da banaketa bera; DBH 1.mailako liburuak 12 unitate didaktiko ditu:

1. Arriskua gozabide. 2. Hori Dona eta! 3. Jeansak beti modan? 4. Letrak ala zenbakiak? 5. Digitalaren on-gaitzak. 6. Ausardia ala izerdia? 7. Misil guztien gainera. 8. Hego Polo helburu. 9. Eta etorkizuneko janaria? 10. Gure antipoda. 11. Zorte ona, zorte txarra... 12. XX. olatuak, mira ala izua?
2. Normalizazio Batzordeak antolatuko dituen proiektu guztietan hartuko dugu parte : Euskararen Egunaren garaian Zergatik ez dugun euskaraz egiten izenburua duen proiektua garatuko dugu, besteak beste.
3. HTB Batzordeak proposatuko dituen zereginetan ere murgilduko gara.

Ondorengo multzoetan banatuko da edukien denboralizazioa unitate bakoitzari dagokionez:

- Komunikazioa: Ataria eta irakurmena.
- Hizkuntzaren erabilera: Gramatika
- Komunikazio-jarduerak/ Egiten jakin.
- Hizkuntzaren erabilera: Lexikoa eta Ortografia.
- Testu-tipologia.
- Literatura-hezkuntza.

Era berean, ebaluazio bakoitzean liburu bat irakurriko dute ikasleek eta prozedura ezberdinak erabiliz gelan landuko dugu: ahozko aurkezpena, tertulia literarioa, ulermen frogak, txostena... etab.

Entzumenak lantzeko audioak ere jorratuko ditugu.

- Baliabide analogikoak:

Arestion aipatutako testu liburuaz gain, aldizkariak, egunkariak... hau da, gure helburuak betetzeko behar izango ditugun argitalpenak.

Literatura irakurketa bultzatuko dugu, ebaluazio bakoitzeko liburu bana; eta, oporraldietan ere liburuak irakurtzea proposatuko diegu, haien artean liburuak partekatuz.

-Baliabide digitalak:

Bestetik, eta proposatu dugun metodologia indartzeko, Informazio eta Komunikazio Teknologiek pisu handia hartuko dute gurean: Bloga (www.plentziaeuskaraz.blogspot.com), Google Classroom, Siteak, Google Drive, YouTube...).

Badauzkagu ere mintegian sortutako plataformak:

1. Aitorren hizkuntza zaharra.
1. Batxizkuntzak
2. Euskal Herriko mendi maiteak
3. Faoko bidea
4. Gatzamina
5. Herri musika
6. Neskak eta mutilak
7. Euskal literatura: Txoritokia (material biltegia).

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].

Banakako, binakako zein taldeko lanak eta proiektuak bideratuko ditugu. Horretarako printzipio metodologiko ezberdinetako puntu hauetan oinarrituko gara:

1. Aurrezagutzaren printzipioa: Eskolara baino lehen eta eskolatik at ikasitako gauza asko dago ikaslearen altxorrean, areago mundu mugikor eta aldakor honetan. Dakitenetik abiatuz eta elkarriketa sortuz abiatu beharra dago, funtzio hori betetzera dator ataria jarduera.

2. Egokitzapenaren printzipioa: Hezkuntzaren izaera hezitzailea indartu egin behar da. Ikasleak gauzak egiten jakiteko prestatu behar ditugu, hau da errealitatean aplikatzen den jakintza, askotariko testuinguruetara egokitzeko aukera eman eta izaera integratzailea duena (jakintzak, prozedurak eta jarrerak). Gure ikasleek jakin eta egiten jakin behar dute, jakintza eta ekintza uztartuz.

3. Funtzionaltasunaren printzipioa: Bizitzarako balio dion zerbait bezala hartu behar du ikasleak eskolako jarduna. Horregatik du halako garrantzia zertarakoak. Beraz, haien errealitatean eta interesetan oinarritzen diren jarduerak proposatzen saiatu gara.

4. Komunikazio printzipioa: Hizkuntza elkarrekintzan erabiliz eta besteekin gauzak egiteko erabiliz garatzen da. Komunikazioa izango da irakaskuntza-ikaskuntza estrategia nagusia, prozesuaren giltzarria hizkuntzaren erabilera esangurutsuak eta eraginkorrak eraikitzean datza. Ikasleek hainbat eratako komunikazio-egoeren aurrean aritzeko baliabideak lor ditzaten testu-genero mota desberdinak landuko dituzte, bere bizitza pertsonalean eta profesionalean beharko dituztenak.

5. Printzipio eraikitzailea: Ikasketa proiektu-jardueren bidez ikasleak parte-hartze aktiboa du jakintzaren sortze-prozesuan, beti ere, irakaslearen laguntzarekin. Jarduera hauek ikasleak motibatu egiten dituzten tresna didaktikoak dira, ikasleak bere ezagutza propioa autonomikoki eraikitzen duelako eta jakintza-maila diferenteetara egokitzen direlako, norberaren ahalmenera moldatuz. Proiektu osoen bidez erraztu egiten da oinarrizko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea eta jakintza-arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna. Jarduera hauek ikasleak motibatu egiten dituzten tresna didaktikoak dira, ikaslea da azken finean, informazioa lortu, hautatu, eraldatu eta prozesatzen duena, beraz subjektu aktiboa izanen da.

Beste aldetik, errealitatean eta haien interesetatik hurbil dauden proiektuak planteatuz motibatu egiten ditugu ikasleak. Beraz, ikaslea subjektu aktibo bihurtzen da ikaste-prozesuan. Hau kontuan

izanik, irakaslearen papera aldatu egiten da. Irakasleak funtzio bi izango ditu: Alde batetik, irakasleak ikasleak motibatu egin beharko ditu ikerketa-proiektu motibagarriak eskainiz eta beste aldetik, gidatu egin beharko du ikaskuntza prozesua argibideak eta baliabideak emanez eta esplorazioa bideratuz.

5. Talde-lanaren printzipioa: Zenbait ariketak bakar-lanean ematen du etekinik ederrena, baina elkar-lanean aritzeak garrantzi handia du gaur egunean. Beraz, bi eratako jarduerak planteatzen ditut unitate guztietan.

6. Diziplinartekotasunaren printzipioa: Proposatzen ditugun jardueren bidez arlo desberdinetako jakintzak uztartzen dira, beraz oinarritzko gaitasunen garapena bermatzen da. Ezin ahaztu, bestalde, euskara komunikazio tresna dela eta berez, ezinbesteko tresna dela edozein giza-harremanetarako.

6. Etxerako lanak erabiliko ditugu edukiak indartzeko eta akats arruntak zuzentzeko.

Ikasleen parte hartzea guztiz beharrezkoa izango da.

7. Gure [Hobekuntza Planean](#) eta [Hizkuntza Proiektuan](#) adierazten den bezala, irakurmena eta entzumena lantzeko beren-beregiko atazak landuko ditugu. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan-saio batzuk antolatuko ditugu, eta bertan landutakoa 3. ebaluazioan zehar ikasgeletan gauzatuko dugu.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> ● Idatzizko probak (gramatika/idazmena) ● Entzumena lantzeko probak ● Ahozko adierazpenak ● Proiektuak ● Banakako zein binakako eta taldeko lanak ● Koaderno digitala zein paperezkoa ● Partaidetza ● Jarrera (orokorra eta Euskararekikoa) 	<ul style="list-style-type: none"> ● Notarako probak:6 ● Irakurketak eta Proiektuak 2 ● Jarrera orokorra, Euskararekikoa, Klaseko lana, etxerako lana, teknologia erabilera egokia, koadernoak: 2
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación].</p>	
<p>Etenbako ebaluazio sistema erabiltzen dugunez gero, ikasleek ebaluazio bat ondo aprobatzen dutenean, aurreko guztia gaindituzat joko dugu.</p> <p>Ikasleren batek aurreko ikasturteetako Euskara ikasgaia gainditu gabe izango balu, ikasturtean zehar ebaluazio bat gaindituz ikasgaia gaindituko luke.</p> <p>Bestela, urtarrean aparteko azterketa egiteko aukera izango dute, gainditugabe duten ikasgai hau gainditzeko. Horretarako udan agindutako lanak aurreko ikasturtekoa gainditzeko %40ko balioa izango du.</p>	

OHARRAK / *OBSERVACIONES*

Plentzian, 2016ko azaroaren 30ean

Mintegi burua: Maria Luz Arranz Uribarrena